

“JUAN TORRES”
Enpresa-ideia eta –
proiektu berritzaileen
LEHIAKETA

1	HITZAURREA.....	3
2	“ENPRESA BERRITZAILE SORTU BERRIEN NEGOZIO-PLANAK” MODALITATEA.....	3
2.1	NORENTZAT:	3
2.2	PROPOSAMENEN EDUKIA:	3
2.3	NOIZ ETA NON AURKEZTU	4
2.4	ESKAKIZUNAK	4
2.5	SARIAK	5
2.6	BALORAZIO-BATZORDEA	5
2.7	JABETZA INTELEKTUALA	6
2.8	ERABAKIA	6

1 HITZAURREA

Ermuko Udalaren Toki Garapeneko Alorrak "JUAN TORRES" ENPRESA -IDEIA ETA PROIEKTU BERRITZAILEEN LEHIAKETAn parte hartzeko deia egiten du. Aurreko edizioetan legeztartutako eredu honako modalitateak egongo dira aukeran:

1. Ideia berritzaileak eta sortzaileak

2. Enpresa berritzaile sortu berrien negozio-planak.

Oinarri hauek ondorengo **modalitateari** dagozkio:

2 "ENPRESA BERRITZAILE SORTU BERRIEN NEGOTIO-PLANAK" MODALITATEA

2.1 Norentzat:

Beren proiektua garatzeko negozio-plan bat abiarazteko asmoa duten pertsona eta enpresa ekintzaileentzat.

2.2 Proposamenen edukia:

Ereduak adierazten duen bezala, proposamenak eduki hauek izan beharko dituzte gutxienez:

- a) Proiektuaren izenburua.
- b) Talde sustatzaile/ekintzailearen aurkezpena.
- c) Enpresa-proiektua betetzeko deskribapena (gehienez 2-3 orri); honako atal hauek izango ditu:

- Enpresa-jarduera eta -helburuak.
- Garatuko diren produktu/zerbitzuak.
- Helburu duen merkatuaren balioztapena.
- Aurreikusitako finantza-beharrak.
- Sortu ditzakeen zuzeneko edo zeharkako lanpostu kualifikatuak.
- Ermuko ekonomia- eta enpresa-garapenari egin diezaiokkeen ekarpena.
- Enpresa-ideiaren AMIA azterketa orokorra.

- d) **Berrikuntza teknologikoko** proiektuaren deskribapena. Honako atal hauek izango ditu:

- **Ekonomia- eta merkatu-ingurunea:**

- 1. Merkatuaren ekonomia-ingurunearen deskribapena
- 2. Produktu/zerbitzuaren abantaila konpetitiboak
- 3. Merkatuaren potentzialtasuna eta erakargarritasuna, merkatuaren segmentazioa
- 4. Lehiakideen azterketa eta haiekiko jarrera.

- **Produktu/zerbitzuen deskribapena:**

- 1. Produktu/zerbitzuaren berritze-maila
- 2. Asebetetzen dituen beharrak
- 3. Aurreikusitako salmenta-bideak
- 4. Sustapen- eta komunikazio-plana

- **Eragiketa-planaren definizioa:**

- 1. Produkzio-prozesuaren deskribapen orokorra, behar izanez gero
- 2. Helburuen eta estrategien deskribapena

3. Enpresaren kokalekua
 4. Jarduera garatzeko beharrezko aktibo finkoen eta azpiegituraren deskribapena
- **Giza Baliabideen Planaren eta Antolakuntzaren definizioa:**
 1. Enpresaren Giza Baliabideen politika orokorraren deskribapena
 2. Hasierako langile kopurua
 - **Plan Teknologikoaren definizioa:**
 1. Enpresaren helburu eta estrategia teknologikoen deskribapena
 2. Plataforma teknologikoaren deskribapena (hardware, software, etab.)
 3. Beharrezko inbertsioen balorazioa
 - **Ekonomia- eta Finantza-planaren definizioa:**
 1. Inbertsioen plana
 2. Finantza-aurreikuspenak (sarreraren eta gastuen bolumena, egoeraren balantzea, altxortegiko aurrekontua)
 3. Ekonomia- eta finantza-azterketa (BEGb, BET, maniobra-fondoa, errentagarritasuna, etab.)
 4. Finantzaketa-estrategia
 5. Erabili daitezkeen finantza-baliabideak

2.3 Noiz eta non aurkeztu

- Proposamenak 2011ko martxoaren 21 baino lehen aurkeztuko dira.
- Ingurumena errespetatzeko xedez, proposamenak posta elektronikoz bakarrik aurkeztuko dira ondoko helbidean: abiapuntu@udalermua.net.
- Bidaltzen diren proposamenak honako erreferentzia jasoko dute: **“JUAN TORRES” ENPRESA-IDEIA ETA PROIEKTU BERRITZAILEEN 6.LEHIAKETA.**
- Aurkezpena egokia ez izateagatik proposamena zuzendu behar izanez gero, gehienez beste 5 eguneko epea emango da horretarako.
- Birusen bat daukaten proiektuak automatikoki baztertuko dira hautaketa-prozesutik.

2.4 Eskakizunak

- a) Deialdi honetan parte hartzeko beharrezkoa izango da proiektuaren ondorio den enpresa-ekimena, produktua edo zerbitzua Ermuan gauzatzea.
- b) *Martxoaren 30ean proiektuen sustatzaileek beraien proiektuak entzutegiaren aurrean publikoki aurkeztu ahal izango dituzte, horretarako gehienez 5 minutu izango dituztelarik. Aurkezpen hau sustatzaileen proiektu eta gaitasunak ebaluatzeko orduan kontutan hartuko da.*
- c) Proiektuak originalak, berriak, gazteleraz edo euskaraz idatziak izan beharko dira. Beste lehiaketa batzuetan sarituak izan daitezke, baldin eta sustatzaileek Ermuan martxan jartzeko asmoa baldin badute.
- d) Modalitate honetako sariak jasotzeko enpresa abian egongo da urte amaiera baino lehen (2011ko Abenduaren 31). Hori frogatzeko beharrezkoa izango da eratzeko eskritura eta IFK edo identifikazio fiskaleko txartela aurkeztea.

- e) Proiektua enpresa batek aurkezten badu, haren jarduera ezin da izan 2011ko urtarilaren 01 baino lehenagokoa eta egoitza soziala Ermuan izan beharko du.
- f) Partehartzaileek Juan Torres lehiaketan aurkezten den proiektuaren inguruan beste lehiaketa batzuetan eskatu edota lortutako subentzio, laguntza edo lehiaketan inguruan informatu eta honek justifikatu beharko dituzte.

2.5 Sariak

Modalitate honetarako sariak hauek izango dira:

LEHEN SARIA:

- **6000€ (ikusi eskakizunak atala).**
- **Izarra enpresa haztegiaren lehen urtean dohainik kokatzeko aukera.**
- 2.urtean Udalaren plenoak I+E enpresen katalogazioari dagozkien hobariak haztegiaren prezio publikoan (bulegoen alokairuaren prezio publikoaren %50ko hobaria).
- 3.urtean Udalaren plenoak I+E enpresen katalogazioari dagozkien hobariak haztegiaren prezio publikoan (bulegoen alokairuaren prezio publikoaren %40ko hobaria).

BIGARREN SARIA:

- **3.000 € (ikusi eskakizunak atala).**
- **Izarra enpresa haztegiaren lehen urtean dohainik kokatzeko aukera.**
- 2.urtean Udalaren plenoak I+E enpresen katalogazioari dagozkien hobariak haztegiaren prezio publikoan (bulegoen alokairuaren prezio publikoaren %50ko hobaria).
- 3.urtean Udalaren plenoak I+E enpresen katalogazioari dagozkien hobariak haztegiaren prezio publikoan (bulegoen alokairuaren prezio publikoaren %40ko hobaria).

Horri honako hau ere gehitu behar zaio: lehen bi urteetan, urte bakoitzeko, % 10eko hobaria izango du enpresa-ekimena sustatu duena emakumea bada edo, enpresen kasuan, gehiengoa emakumeak badira.

Sariak ordainketa bakarrean banatuko dira enpresaren eraketa eta dagokion EJZn alta eman dela justifikatzen den momentuan.

Kopuru ekonomikoen kibraketarako, sustatzaileak laguntza totalaren %50a negozioa martxan jartzeko beharrezko ondasun, ekipa edota zerbitzuetan erabili dela justifikatu beharko du.

Sarien epai ofizialetik urtebeteko epea igaro ostean enpresarik eratu ez bada edo jarduerari ekin ez badio, hori justifikatzeko arrazoirik izan gabe, galdu egingo du kobratzeko dituen kopuruak jasotzeko eskubidea..

Sariak eta fiskalitatea: Irabazleek adierazi ahal izango dute –aurrez justifikatuz– saria gauzatzeko modua (pertsona fisiko baten edo hainbaten edo juridikoaren izenean) eta, edozein kasutan, horien koste fiskala beren gain hartuko dute.

2.6 Balorazio-batzordea

Balorazio Batzordea Udaleko teknikariek osatuko dute. Proposamenen kalitatea eta horiek oinarriekin bat datozen baloratuko da.

Balorazio Batzordeak honako aukeraketa-irizpide hauei jarraituko die:

- Proiektua berritzailea izatea (25 puntu)

- Enpresa-planaren enpresa-, teknologia- eta ekonomia- eta finantza-bideragarritasuna (20 puntu)
- Talde sustatzailearen inplikazioa eta talde kudeatzailearen esperientzia (20 puntu)
- Zuzeneko edo zeharkako lanpostu kualifikatuak sortzeko gaitasuna (20 puntu)
- Ermuaren garapena bultzatzeko eta dibertsifikatzeko gaitasuna (10 puntu)
- Proiektua publikoki aurkeztea (5 puntu)

“Juan Torres” lehiaketara aurkezturiko proiektuari dagokionez, lehiakideek eskatu eta/edo lortutako edozein diru-laguntza, laguntza edo beste lehiaketaren baten eskuratutako edozein sariren berri eman behar dute, baita justifikatu ere.

2.7 Jabetza intelektual

Deialdi honetan parte hartzen duten guztiek aitortzen dute aurkeztutako proposamenetako titulu-jabetza eta legitimazio nahikoa dituztela. Edukiei dagokienez, adierazten dute ez dutela urratzen hirugarren batek Espainian edo atzerrian izan dezakeen jabetza intelektual edo beste edozein eskubide, eta antolatzaileak aipaturiko proiektuaren erabileraren ondoriozko erantzunkizunetik kanpo geratzen direla. Edozein kasutan, beren proposamenetako edukien erabileraren ondoriozko kalte-galeren erantzule bakarrak partaideak izango dira, baita horien erreprodukzio, hedatze edo banaketarenak ere.

Proiektuak (edo horien jabetza intelektual) sustatzaileenak izango dira, eta erakundea ezingo da horien jabe egin.

Gainera, sariak banatu arte proiektuen edukia ez hedatzeko konpromisoa hartzen du antolakuntzak. Entitate antolatzaileei edo kolaboratzaileei (Balorazio Batzordeari, Epaimahaiari eta deialdia egiten duten entitateetako teknikariei) baino ez die emango horren berri.

2.8 Erabakia

Ebazpena apirilaren 1ean ezagutaraziko da, sariak egun berean banatuko direlarik Lobiano Kultur Gunean egingo den ekitaldian. Antolatzaileek irabazleei horren berri eman diote aurreko egunean

Epaimahaia deialdia egin duen erakundeko ordezkariak osatuko dute.

Epaimahaikoen erabakia jendaurreko ekitaldian emango zaie ezagutzera partaideei. Horrez gain hedabideetan ere argitaratuko da.

Epaimahaikoek sari guztiak edo batzuk eman gabe utzi ahal izango dituzte proiektu kopuru nahikoa aurkezten ez bada edo aurkeztutakoek behar beste kalitaterik ez badute. Sariaren bat eman gabe geratzen bada epaimahaikoek bi aukera izango dituzte: beste deialdi publiko bat egitea edo kasuan kasuko zenbatekoa beste kategoria bati ematea. Halaber, saririk gabe geratu arren kalitate nabarmena izan duten lanen ohorezko aipamena egin dezakete.

Epaimahaiak lehiaketa honen oinarriak interpretatu eta osatzeko ahalmena izango du. Bere erabakiak behin betikoak izango dira eta ezingo da errekurtsorik kontra aurkeztu.

Lehiaketan parte hartzeko oinarri hauek eta oinarrien ondoriozko eskubide eta betebeharrak bete-betean onartu behar dira, ezinbestez.